

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO EUSKARAREN TXOSTENA



NUPeko EUSKARA TALDEA

2020-2021ikasturtea

Aurkibidea:

1. SARRERA
2. ESKAINTZA
3. IKASLEEN EZAGUTZA MAILA
4. EUSKARAZKO IKASGAIK ETA IRAKASLEEN KONTRATAZIOA
5. KASU ZEHATZAK
6. ONDORIOAK

1. SARRERA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere estatutueta 118.1 eta 121 artikuluetan, euskarak gaztelaniaren pareko hizkuntza izan behar duela aitortzen du. Eskubide bera adierazten da Vasuenceren Legean ere. Baina unibertsitate honen sorreratik gaur egun arte eman den politika linguistiko negargarriaren ondorioz, gaur egun, euskara hirugarren mailan dago. Ikasle euskaldunon eskubideak zapalduak izaten ari dira. 2021an, eleaniztasunaren aroan, justizia soziala ahoz-ahoz dagoen sasoiaren, ezagutzaren garaian, oraindik eta zentzugabeago dirudi Institutio Publiko batek herritarrei haien hizkuntzan ikastea galaraztea...

Nafarroako egoera sozialarekin bat egin beharko lukete unibertsitatean eskainitako zerbitzuek, erakunde publiko bati buruz hitz egiten ari garelako. Tamalez, NUPeko eskaintza ez dator bat Nafarroako errealtate soziolinguistikoarekin. Eskaintza eskaria baino txikiagoa da. Egoera hau kezagarria da, euskaraz ikasi nahi duten (eta horretako eskubidea duten) ikasle askok beste unibertsitate batzuetara joan behar izaten dute ikasketak euskaraz burutzeko. Eskaintza eta eskariaren aitzakipean nafar herritar batzuk bigarren mailakoak bihurtzen dira enegarrenez. Eskaria eta eskaintzaren aitzakiarekin aspertuta gaude. Ez da egia. Urteik urtera hezkuntzan euskarazko matrikulazioak gora egiten du. Selektibitateko datuek ere gauza bera adierazten dute.

Unibertsitatearen ardura da etorkizuneko langileen prestakuntza. Espezializatutako arloko euskara teknikoaren ezjakintasunak lan mundura irtetean, ezagutzak euskaraz azaltzeko gaitasuna mugatzen du. Era berean, Gradu Amaierako Lana eta praktikak euskaraz egitean, arazo berarekin egiten dugu topo. Izan ere, ikasketak gaztelaniaz egin izanak baldintza dezake ikasleak gradu amaierako lana euskarazko hiztegi aberats batean azaltzeko izan ditzakeen zailtasunak.

Euskara taldearen eta irakasle batzuren lana fruituak ematen hasi da, izan ere, poliki-poliki ikasgai gehiago euskaraz ematea lortzen ari gara. Hauen inizatibarengatik jarri da unibertsitatea euskarazko kreditu gehiago eskaintzeko lanetan. Zoritxarrez, pertsona hauek ez badute unibertsitatearen atzetik jarraitzen, unibertsitateak ez du lan handirik eginen euskarazko eskaintzak gora egiteko. Ikasketetako euskararen presentzia eskasa diruarekin justifikatzen dute.

Azkenik, 2017. urtean NUPen ezarritako Euskara Planak amaiera izanen zuen eta tamalez, unibertsitateak ez du bertzerik egiteko asmorik. Euskara plan horretan, unibertsitateak euskararekiko hartu behar zukeen jarrera orokor eta ambigua biltzen zen. Bi urteak pasatu ondoren, bertako hainbat puntu ez dira bete, helburuak oso epe luzekoak baitziren. Erretoretza berriak "plan integral." ren aldeko apustua egin du eta euskara taldearen helburu nagusietako bat, plan horretan ikasleriaren

ahotsa isladatzea da, hala ere denboran luzatzen den kontua izaten ari da hau eta gaur gaurkoz ez dago plan berririk martxan. Beraz, orain dela bi urte akitutako euskara planaren ondotik unibertsitateak ez du bertzerik martxan jarri eta hitz politetan gelditu da haren jarduna.

2. ESKAINTZA

2019-20 eta 2020-21 ikasturteetako kreditu kopurua euskaraz eta ingelesez. Datuak unibertsitateko web orrialdetik hartuak izan dira.

Hurrengo taula honetan gradu bakoitzean euskaraz eta ingelesez eskaintzen den kreditu kopurua biltzen da.

FAKULTATEA	GRADUA	KREDITUAK 2019/20		KREDITUAK 2020/2021			
		EUS	ING	EUS	ING		
Z. Juridikoa	Zuzenbidea	36	36	42	72		
	Lan harremanak eta giza baliabideak	18	18	18	18		
Osasun Z.	Erizaintza	18	0	30	0		
	Fisioterapia	6	0	0	0		
	Medikuntza (2 kurtso)	0	0	0	0		
	Psikologia (2 kurtso)	0	0	0	0		
Ekonomia eta enpresa Z.	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza (ADE)	114	84	126	108		
	Ekonomia	102	90	126	90		
Informatika eta telekomunikazioa	I. Biomedikoa (3 kurtso)	42	0	42	0		
	I. informatikoa	42	9	42	6		
	I. telekomunikazio teknologietan	42	9	48	6		
Industria	I elektriko eta elektronikoa	72	3	72	3		

zientziak	I. mekanikoa	108	3	108	3		
	I. diseinu mekanikoan	0	30	0	6		
	I. Industria teknologietan	102	18	105	6		
Giza eta gizarte zientziak	Historia eta ondarea (2 kurtso)	0	0	24	0		
	Soziologia aplikatua	60	24	60	24		
	Gizarte lana	66	36	72	30		
Hezkuntza	Maestro de educacion infantil	0	12	0	12		
	Haur hezkuntzako irakaslea	189	12	189	12		
	Maestro de educacion primaria	0	18	0	18		
	Lehen hezkuntzako irakaslea	189	18	189	18		
Zientziak	Gradua bioteknologian	0	0	12	12		
	Gradua zientzietan	0	0	12	18		
	Gradua datuen zientzietan	0	0	6	18		
Agronomoak	IAMR	66	87	60	54		
	IPPA	24	27	24	24		
Gradu bikoitzak	IAMR + IPPA	66	72	60	36		
	Datuen zientziak eta ADE (2 kurtso)	0	0	6	18		
	ADE + Ekonomia internazionala	0	336	0	336		
	ADE + Zuzenbidea internaziola	24	66	24	123		
	Haur hezkuntza + Lehen hezkuntza						
	Teleko + i. biomedikoa (36	0	48	0		

	2kurtsu)						
	ADE + Zuzenbidea	30	12	30	12		
	ADE	0	288	0	312		
	I. telekomunikazio teknologietan	0	66	0	96		
	I. industria teknologietan	0	150	0	153		
P. inter.	I. informatikoa	0	66	0	90		
	DENETARA	1446	1590	1569(+123)	1734(+144)		

**Datuak unibertsitateko web orritik hartuak izan dira*

Bere osotasunean euskaraz eskaintzen den gradu bakarra magisteritza da.


Azken ikasturtean ere, aurretik izandako joerari eusten dio NUPek eta Euskararen Plana 2017-19an ikusi ahal izan zen moduan, unibertsitateak ingelesaren eskaintza lehenesten du euskarazko eskaintzaren gainetik.

3. IKASLEEN EZAGUTZA MAILA

Hurrengo orrialdeetako datuak aztertuta, argi ikusten da NUP-eko ikasle euskaldunen kopuruak gora egiten duela urtetik urtera. Aztertutako datu berrienak 2018-2019 ikasturtekoak dira, beraz, gauden 2020-21 ikasturteko datuak oraindik altuagoak izan daitezkeela aurreikusten dugu.




Azkeneko 14 urtetan argi dago euskara maila ona duten ikasleen kopurua handitu dela. Gaur egun ikasleen %45.8 euskara ulertzeko gai da eta horietatik %68.32k, hau da unibertsitateko ikasle guztien %31.29ak, euskara ongi menperatzen dute.



Euskararen ezagutza fakultateka aztertuz gero, nabarmentzekoa da osasun zientzietako fakultateko ikasleen erdiak baino gehiagok euskara menperatzen duela. Haez gain, %11,29 euskara ulertzeko gai dira.

Giza eta gizarte zientzietako ikasleen %41.15ak oso euskara maila ona du. Aipatzekoa da baita ere, ekonomia eta enpresa zientzien fakultatean, laurden bat gutxienez, erraz komunikatzen dela euskaraz.



Grafiko honetan, irakasgaiak euskaraz egiteko prest dauden ikasleen datuak ikus daitezke. Datu hauen eboluzioa ikus daiteke 11 ikasturte ezberdinetan zehar. Nabarmentzekoa da, nahiz eta urte batetik bestera aldaketa handirik ez egon, euskaraz ikasteko prest dauden ikasleen portzentaia oso altua dela, batz bestea, %81.81-a hain zuzen ere.

EGA tituludunen datuak:

2. Taula. EGA titulua duten ikasle kopurua fakultateka.

FAKULTATEAK	2017-2018	2018-2019
Nekazaritza Ingeniarien G.M.E.T	42	58
Industria eta telekomunikazio ingeniarien G.M.E.T	118	118
Osasun zientzien fakultatea	138	149

Gizarte ekonomia eta enpresa zientzien fakultatea	126	131
Zientzia juridikoen fakultatea	53	51
Giza eta gizarte zientzien fakultatea	175	184
GUZTIRA	652	691

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, EGA titulua duten ikasle kopurua handituz doa urtez urte. Datu hau garrantzitsua da, hala ere ez da ahaztu behar EGA titulurik ez duten ikasle euskaldun aunitz daudela.

4. EUSKARAZKO IKASGAIK ETA IRAKASLEEN KONTRATAZIOA

Joan zen ikasturtean jakin izan genuenez, dozentziaren arabera eskatu eta kontratatzen dira irakasleak. Beraz, kate honetan egin behar dira aldaketak.

Gaur gaurkoz ez dago euskarazko irakaskuntzaz arduratzen den egitura administratiborik. Hizkuntza plangintzako batzordeak ez du botere legalik eta beraz euskara plana betetzea ez da derrigorrezkoa. Hori dela eta, euskarazko errektoreordetza baten beharra ikusten da (Vicerrectorado de internacionalizacion existitzen den moduan). Egitura honek, euskarazko ikasgaien kudeaketaren inguruan jardunen luke: bai gaur egun dauden irakasleen kontrola, ikasleen datuak eta baita ikasgai berriak eskaintzeko prozedura landu ere.

Tresna honen bidez, ikasleen nahiak era ofizialean bildu eta erantzuna emango luke. Izan ere, orain arte bildutako ahoz ahoko informazioaren arabera, euskarazko ikasgai gehiago eskaintzeko ardura departamentu eta fakultateek dute eta ezagunak dira hauek jartzen dituzten aitzakiak eta oztopoak euskarazko eskaintza handitze aldera.

Aipatzekoa da, normalean, ikasleek bultzatuta jartzen dela martxan euskarazko ikasgaien eskaria. Hori dela eta, honakoak dira ikasle taldeek eman beharko lituzketen pausuak.

1. Lehenik eta behin ikasleen artean **eskari gutuna idatzi**, egoerak eragiten dien ikasleek sinatuta. Bertan, eskaeraren arrazoiak, eskatzen diren ikasgaien izenak (ahalik eta informazio gehien: zenbatgarren kurtsokoa, departamentua) eta ikasleen parte-hartze datuak (zenbat matrikulatuko liratekeen) agertu behar dira ahal den neurrian.

2. **Instantzia bidez unibertsitateko erregistroan sartu** (Administrazio eraikinean). Vicerrectorado de enseñanzasi zuzendu instantzia, baita eskola/fakultateari ere.
3. Erretoretza/fakultatea ikasgaiaz arduratzen den departamentuarekin harremanetan jarriko litzateke. Batzuetan komenigarria da bilera bat deitzea mezua aurrera doala ziurtatzeko, dena den instantzia sartzekoan **derrigortuta daude erantzun bat ematera**.

Gustuko erantzuna jaso ezean, aukera dago unibertsitateko klaustrora jotzeko eta gaia bertatik lantzeko. Klaustroan ikasleen bi ordezkari daude euren problematikak lantzeko eta arazoa erretoretza eta irakasleen ordezkariekin zuzenean klaustro bilera batean lantzeko.

Behin proposamena errektoradutzan onartuta, hurrengo pausua irakasleen kontratazioa izanen litzateke. Irakasleen kontratazioa da gakoetako bat. Bi egoera eman daitezke:

- A. Departamentuko irakasle batek bere burua eskaintzea. Egoera hau emateko irakasleak ordu kopuru jakin bat libre izan behar du. Arazoa da, gaur egungo irakasle euskaldun gehienak %100era daudela lanean eta ezin dituztela klase ordu gehiago hartu. Beraz, euskal profila betetzen duten irakasleak kontratatze beharra dago
- B. Listak irekitzea euskal profila duten irakasleak deituz. Kasu hau ez da batere ohikoak, izan ere erretoretzak eta batez ere departamentuek ez dute asmorik irakasle euskaldunen kontratazioan inbertitzeko.

Kontratazioak egiteko dirua Nafarroako Gobernuak jartzen du eta horretarako unibertsitateak aurkeztutako aurrekontuak onartu behar dira. Hurrengoa da gure proposamena: aurrekontu horietako diru kopuru bat euskal profila duten irakasleak kontratatze bideratzea.

Zoritzarrez, euskarazko irakasgaiak kendu dituzten kasuak eman dira, ikasle kopuruarengatik (nahiko subjektiboa, izan ere, ingelesezko ikasgaiak ez dituzte horren erraz kentzen) edo irakasle faltarengatik.

5. KASU ZEHATZAK

Historia eta Ondarea

Historia eta Ondarea gradua 2019-2020 ikasturtean eskaini zen lehen aldiz, beraz, aurreko erretoretzea taldearen gidaritzapean. Hasiera hartan, Alfonso Carlosena erretoreak ez zuen ahalbidetu euskarazko irakasgaien eskaintza lehen lau urteak pasatu arte. Aldaketaren ondoren ordea, Ramón Gonzalo Garcíak lau ikasgai eskaintzea onartu du, bat seihileko bakoitzean 2020-2021 ikasturtetik aurrera.

Aipatzekoa da gradu honetan euskarazko ikasleen kopurua handia dela eta lan mundura irteteen lanpostu publikoak betetzeko euskararen ezagutza interesgarria dela.

Gizarte Lana

Azken urtean aurrera pausuak eman diren arren, antza denez heldu den urtean lehenbiziko maila euskara hutsean eskainiko da, ulergaitza da nola departamentu honek euskarazko eskaintza handitzeari oztopoak jarri dizkion. Aukera baitzegoen karreraren puska handi bat euskaraz egiteko, irakasle eta ikasle nahiko dago euskarazko eskaintza ahalbidetzeko, baino bai fakultatetik baita departamentutik ere oztopoak jarri dira.

Heldu den ikasturtean landu beharreko gaia izanen da.

Bioteknologia, Zientziak eta Datuen Zientziak

Hiru gradu hauek berriak izanik, ez dute euskara planak finkatzen dituen euskarazko kredituen ehunekoa betetzen (%10). Oinarrizko ikasgaiak gaztelaniaz direla ikusita, taldeko hiru kide departamentuetako irakasleekin bildu ziren 2019ko udazkenean eta euren aholkuak bilduz “Nekazaritza Ingeniarrien Goi Mailako Eskola Teknikoko Euskarazko Eskaintza” txostena egin zen. Bertan oinarrizko irakasgaien zerrenda ageri zen, gradu ezberdinetako bateragarritasuna eta irakasle euskaldunak lotuz. Taula horri ikasleen euskara ezagutzaren analisia batu zitzaion.

Datu bilketa honekin eskolako zuzendaritzarekin bilkura egin zen (2019ko abenduaren 11), eta haiek arazorik ez zutela ikusita, Inma Ferran, “irakaskuntzako erretoreordetza”rekin bildu ginen 2020ko urtarrilean. Honen erantzuna ordea ezberdina izan zen, ez baitzuen gaiarekiko inolako interesik jarri. Are gehiago, zientzietako graduak ingelesez izan beharko luketela bere osotasunean markatu zuen.

Bien bitartean, azaroan bildutako irakasle batzuk beren burua aurkeztu diote sailari, 2020-2021 ikasturtean ikasgai horiek euskaraz eskaintzeko (adibidez kimika).

2020-21 ikasturtean biologia eta biokimika ikasgaiak euskaraz eskaintzen dira.

Erizaintza

2019-20 ikasturtera arte 3 ikasgai besterik ez ziren euskaraz eskaintzen. NUP-eko osasun fakultateko euskara taldeak sinadura bilketa bat egin zuen 2019-20 ikasturtean.

2020-21 ikasturtean lehenengo seilekoko ikasgai guztiak (5 ikasgai) euskaraz eskaintzen dira.

Gogorarazi beharra dago, bai ikasleen arloan eta baita irakasleenean ehuneko handi batean euskaldunak direla. Hau jakinda eta gradu honen lan irteera nagusietako bat jendaurrean lan egiteko zuzendurik dagoela, ulergaitza da euskarazko eskaintza handiagorik ez izatea.

6. ONDORIOAK.

1. Euskara Taldeak ezinbertzekotzat hartzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskara plan berri bat martxan jartzea. Helburu zehatzak izanen dituena eta urteetan emandako euskararen bazterketarekin behingoz amaituko duena. Beharrezkoa da unibertsitateko errektoradutzak jarrera aldaketa bat izatea eta behingogatik euskarari eta ikasle euskaldunoi merezi dugun trataera ematea, hau da, gure eskubideak bermatuko duen hizkuntza politika aurrera eramatea.
 - a. “Vicerrectorado de internacionalización” existitzen den moduan, euskararen irakaskuntzan aurrerapausoak emanen dituen egitura administratibo baten sorrera. Beti ere, euskararen aldeko mugimenduak unibertsitate honetan dituen aldarriak kontuan hartuko dituena eta euskararen normalizaziorako pausu errealak emanen dituena.
2. Fakultate eta departamentuak jarrera aldaketa bat izan behar dute euskararekiko eta eskaintza handitu behar dute. Departamentu eta fakultate desberdinek aunitzetan oztopoak jartzen dituzte euskarazko eskaintza handitzerakoan, hori dela eta euskarazko eskaintzak ez du aurrera egiten.
3. Unibertsitateko eremu desberdinetan (barne komunikazioa, zerbitzu desberdinak e.a.) ematen den hizkuntza eskubideen urraketaekin amaitu beharra dago. Unibertsitateko komunitatearen beharrei zuzenduriko lanpostuetan euskarazko profila ezartzea ezinbestekoa da, bai eta itzulpengintza zerbitzua indartzea komunitateko kideei zuzenduriko mezuak elebidunak izan daitezen eta horrela unibertsitateko estatutuek diotena bete dadin.
4. Unibertsitateko kargu batzuek euskararekiko duten jarrera aldatzea eskatzen dugu. Balioan jarri behar dute gure hizkuntza, eta ezin dute ahaztu Nafarroako Unibertsitate Publikoko buru direla eta euskara bertako hizkuntza dela. Gaineratu beharra dago haien betebeharra dela ikasle eta orokorrean komunitate guztiaren eskubideak errespetatzea, baita euskaldunon eskubideak ere.
5. Azkenik eta bukatzeko, argi dugu egun euskarak duen egoera aldatzeko, ezinbertzekoa dela ikasleon antolakuntza, bai eta unibertsitateko komunitate euskaldunaren laguntza eta babesa. Ezin dugu ahaztu ordea, gaur gu garela hizkuntza eskubide urraketa hau pairatzen dugunak, baino etorkizuneko belaunaldiak ere bizi dezaketela, beraz hori gerta ez dadin, nafar jendarteari eta euskalgintzako mugimenduari dagokio ere borroka honetan parte hartzea.

